

MUGEN GAINETIK MOHAWKERAZ

Kanadak eta Ameriketako Estatu Batuek erdibitutako herri indigena da Akwesasne

 **HISTORIA /** Urtzi URRUTIKOETXEA

Arizonatik lau mila kilometro baino gehiago ipar-ekialdera dago Akwesasne (edo Ahkwesáhsne), mohawk nazioaren erdigunean. «Jatorria Mohawk haranean dugu, baina zuriak erreserbetara joanarazi gintuzten», azaltzen du Kaniatari:io Skye Sunday gazteak. “Ionkwahronkha’ónhá-tie” («Hiztun oso bihurtzen ari gara») mohawk hizkuntzaren aldeko elkarteko arduradunetako bat da.

Montreal ingurutik eta Ontario lakuaren ertzeraino ehunka kilometrotan hedatzen den nazioaren erdigunean dago gutxi gorabehera Akwesasne. San Lorentzo ibaiaren hegoaldera dagoen herria da; berez, Kanada eta AEBen muga da ibaia, baina kolonialismoaren apetek mugako marra metro batzuk he-

goalderago eraman zuten. Hala, ustez Estatu Batuetako lurraldean zabiltzala, GPSan «ongi etorri Kanadara» dioen mezua ageri da, berez Akwesasneko St Regis kalean metro batzuk soilik egin arren.

Mugaren alde batean «St Regis mohawk erreserba» dago, eta aitortza federala du AEBetan; beste aldean, Akwesasne 59 erreserbak dauka mohawk

lurraldearen zati handiena, baina 15 erreserba ere badago; lehena Ontario probintziari dagokio, eta Quebec-i bigarrena, bi horien arteko muga ere badelako lurraldea. Herriaren erdigunea Kanadaren menpeko lurraldean dago. Parean San Lorentzo ibaian ageri diren uharteak ditu, eta ibaiaren beste ertza, baina txalupaz baino ezin dira hara heldu he-

rritarrek. Errepidez joateko, mohawk erreserban jarraitu arren, Estatu Batuetarainoko 400 metroak egin behar dituzte, eta handik kilometro pare batera, ibaiaren gaineko zubia igarota, ageri da muga.

Ongietorria ematen duen seinalea eta gidariak zein muga-postutatik joan behar diren adierazteko oharrak hiru hizkuntzatan daude: ingelesaren eta frantsesaren azpian, *Kahn-hotónkwen* dio aurrera egiteko adierazten duen seinale berdeak. «Behinola tribuko agure bati galdetu nion nolatan gertatu zen mugarena, eta esan zidan zurien kontua zela, gure bizimodua zailagoa egiteko», azaldu du Kaniatari:io-k.

MUGA ETXEAN

Herriaren alde batetik bestera joateko aduana pasatu behar dute, «ez-indigenek galdekatzen digute zer daramagun, zertan ari garen mugan, noiz arte egongo garen beste aldean. Eta gure herrian gaude», gaineratu du mohawk gazteak.

«Badirudi ez garela komunitate bakar bat, marra artifizial hori doalako erditik. Bai, zati-tuta gaude, baina badakigu ondo nor garen, badakigu herri bakarra garela, muga hor egon arren, batzuetan zehar-katzea zaila izan arren».

Batzuetan nekatu eta hase-rretu egiten dira mugazainekin, eta are gehiago luzatzen da beste aldera joateko bidea. Baina ez dute etsitzen.

Donald Trumpen adierazpe-
nek eta neurriek are gehiago konplikatu dute mugaldeko bizimodua. Aspaldikoa da egungo presidentearen mohawkekiko ezinikusia.

Duela mende laurden bat, haien aurkako zurrumurru eta albisteak hauspotu zituen, erreserban irekitzear ziren ka-

Akwesasnera ongiatorria ematen duen kartela.
Urtzi URRUTIKOETXEA



sinoak bere negozioei kalte egingo zielako. Azkenean, barkamen oharrak argitaratu behar izan zituen. Teorian, lurralde subiranoa izanik bi aldeetan, mugako eztabaidak ez lioke eragin beharko, «baina sarritan zaila da, bi aldeetako gobernuek uste dute nahi dutenean etor daitezkeela gure komunitatera», dio Matthew Rourke AEBetako aldeko mohawk poliziako buruak. Muga marraztu zenetik, kontrabandorako bidea izan da, eta egun ere hala dela aitortzen dute, «droga-trafikoa zein migratzaileak» dio Rourkek. Iaz zortzi migratzaile ito ziren Akwesasne San Lorentzo ibaia igaro nahian.

Kaniatari:io Skye Sunday mugaren Kanadako aldean bizi da, baina ez du pasaporte-rik, «bi pasaporteak izan ditzakedala uste dut» dio askorik axola gabe. Tribuak berak emandako agiriak ditu, eta gidabaimenarekin ere zeharkatzen du muga. «Berriki gure pasaporteak egin ditugu, baina Gobernu estatubatuarrak ez ditu aitortzen, beraz, ezin gara mugara edo aireportura joan horrekin», adierazi du.

Beverly Cook da tribu-kontseiluko burua, eta jendearen kezak azaldu ditu; lurraldearen estatus bereziak subirano-tasuna aitortzen dio, eta hori errespetatzea nahi du.

«Gure lurraldearen kontrola geuk gauzatu nahi dugu, eta geuk ebatzi behar dugu nork daukan gure herritartasuna», nabarmendu du. Horregatik, Washingtingo muga-zergekek eta bestelako mehatxuek mohawk lurraldean ez luketela eragin behar dio.

MUGA ETXEAN

Kaniatari:io Skye Sunday gazteari zenbait hitz eta esaldi ira-

Kaniatari:io Skye Sunday mugaren Kanadako aldean bizi da, baina ez du pasaporterik, «bi pasaporteak izan ditzakedala uste dut» dio askorik axola gabe

«Badirudi ez garela komunitate bakar bat, marra artifizial hori doalako erditik. Bai, zatituta gaude, baina badakigu ondo nor garen, muga hor egon arren»

katsi zizkioten aitona-amonek mohawkeraz (kanien'kéha), eta oinarri horretatik abian «asko ikasi dut, hiztun osoa naiz, baina ez dakit zaharrek bezain ondo».

Ionkwahronkha'önhátie' hizkuntza-ikasle gazteek zuzendutako elkarte da, hizkuntza berreskuratu eta bizi-berritzeko. Elkarrekin eta adineko hiztunekin batu eta hizkuntza erabiltzea, mintzatzea dute ardura nagusi. Beste leku askotan bezala, bai AEBek bai Kanadak asimilazio-politika bortitzak

inposatu zizkieten mohawkei ere, familietatik haurrak eramanda, ingelesa ikasteko eta hizkuntza eta ohitura indigenak ezabatzekeo.

«Barnetegi-eskoletara bidali, kristautasunean asimilatu eta gure hizkuntza eta kultura kendu zizkiguten. Baina eutsi diogu, ez dakit nola, baina eutsi diogu». Zenbait mohawk erreserbatan hiztunak galdu dituzten arren, Akwesasnen gainerako lekuetan baino osasun hobea dauka hizkuntzak. «Nahiko nukeen hizkuntzarekin hazi banintz, baina pozik nago lortzen ari naizenarekin; gure historia eta istorioak eta kultura hizkuntzari lotuta daude», helarazi du.

Badaki akatsak egiten dituela eta estimatzen du hiztun zaharrek zuzentzea; gainera, herritik aparte dagoen komunitate batekoa denez, hizkuntzari hobeto eutsi dioten gune batean bizi dela dio.

Adinekoak hil ahala, jatorrizko hiztunak badoaz, Ipar Amerikako komunitate indigena gehienetan bezalaxe. Mohawkek, baina, gainerako herriek baino askoz lehenago egin zituzten hizkuntzari eusteko urratsak. Akwesasneko mutur batean dagoen eraikinean Alvera Sargent-ek hartu gaitu; hemen sortu zen 1979an Freedom School edo eskola libre. 1985erako, erabat mohawkerazko murgiltze-eruari heldu zioten, baina ez zen erraza izan, «batzuek erge-len eskola deitzen zioten»; eta AEBetako edo New Yorkeko ikasgai-zerrenda ofiziala beharrean, mohawkek eurek diseinatutako curriculumari jarraitzen diote. Garai hartako ia irakasle guztiak jatorrizko hiztunak izan ziren; egun, eskolan haurtzaroan edo helduaroan ikasi duten hiztunak ere



Smithsonian Folklife Festival. Urtzi URRUTIKOETXEA



badaude, baina transmisioa ez da eten.

Herriko beste muturrean dago egun eskolaren eraikina, 57 ikasle dituzte aurten. Bertaratutakoan, berehala nabari da lau hamarkada baino gehiagotatik datorren izpiritu librea. Hizkuntzatik bertatik, umeak zein irakasleak mohawkeraz ari dira, eta txikienen kasuan hizkuntza entzun eta ikasi nahi duten gurasoak ere bertan dira («hiztun berriak sortu eta hizkuntza berreskuratze-ko, familiaren konpromisoa behar da, eskolatik kanpoko ahalegina ere izan dadin»).

Hautzaroan bertako ikasle izandako umeak egun irakasle edo boluntario dira; zenbaitek hizkuntza etxetik zekarten –familia gehienetan transmisioa eten zen, AEBetako herri indigena gehienetan bezala, baina izan ziren hizkuntzari eustea lortu zutenak–, baina gehienek Freedom School-en ikasi zuten. Egun, 13-14 urtera arte ikasten dute bertan, gero, ingelesez jarraitu behar dute eskola publikoan.

«Hasieran galdu samar ibili nintzen, baina azkenean ingelese alde guztietan dago» dio Ganesiosta-k; ikasle ohia izanda, egun eskolan dihardu.

HIZTUN BERRIAK

Hizkuntza berreskuratze-ko grina bizi-bizia dela diote, bai murgiltze-ereduan egon eta gerora zerbait galdu dutenen kasuan, baita etxean edo eskolan ezer ez edo oso gutxi jasoa baina etorkizunean mohawkeraz-hiztun izan nahi dutenen aldetik ere. «Institutura joan ginenean, eskola-kook gure artean jarraitu genuen hizketan, eta uste dut

Ionkwahronkha'onthátie' elkarteko Karonhiiósthá Shea Sky eta Kaniatari:io Skye Sunday.
Urtzi URRUTIKOETXEA

Hautzaroan bertako ikasle izandako umeak egun irakasle edo boluntario dira; zenbaitek hizkuntza etxetik zekarten, baina gehienek Freedom School-en ikasi zuten

Asimilazio-prozesuen itzala eta trauma oso luzea da egun ere. Baina Ganesiostak nahiago du zaharrenen harridura eta poz aurpegiak gogoratu, mohawkeraz egiten duenean

besteei ere gehiago ikasteko gogoia piztu geniola». Egoera ez zen beti horrelakoa izan, noski, «oraindik ere badago hizkuntza ondo jakin arren, seme-alabei irakatsi ez izana harro aipatzen duenik».

Asimilazio-prozesuen itzala eta trauma oso luzea da egun ere. Baina Ganesiostak nahia- go du zaharrenen harridura eta poz aurpegiak gogoratu, mohawkeraz egiten duenean.

Ez Akwesasnen bakarrik, Montreal aldameneko Kanah-wake-n ere aritu da hurrekin lanean bere hizkuntzan. Quebec-en egon arren, frantsesa ingelese baino are arrotzagoa zaie mohawk gehienei. 1990eko hamarkada hasiera-ko gatazkak, Oka-ko gudua eta setioa, esaterako; iltzatuta dituzte oraindik. Golf zelai bat mohawk hilerri baten lurretan egiteko proposamenak hilabeteetan iraun zuen matxinada piztu zuen, eta mohawken defentsa eta harrotasunarekin batera, frantses sektore batzuen arrazismoa ere agerian utzi zuen.

«Akwesasneko eskola AEBetako aldean dago, baina herri guztiko familiek dakartzate haurrak bertara. Ez dugu muga aitortzen» dio Alvera Sargentek. Baina muga hor dago, eta egunero sufritzen dute Akwesasneko familia askok, haurrak eskolara dakartzatene- nek, esaterako. «Hamar minutuko bidea behar luke berez, baina mugarekin, sekula ez dakite noiz iritsiko diren eskolara», dio Kaniatari:io Skye Sundayk.

«Tratatuen arabera, mugaren kontrola dagokigu, herri- tar nor den ebazten dugu, eta AEBetako eta Kanadako herri- tartasun bikoitza ere badugu». Baina presioa igotzen ari da, ofizialki kanadarra den baina egun bere betiko herrian — AEBetan— bizi den Alvera Sargentek ondo dakien legez.

«Ni zaharra naiz, ez naute orain burokrasian eta papere- tan itoko AEBetako txartel berdea eskuratzeko, baina gu- re ikasle batzuei eragiten die honek guztiak». Unibertsitate- ra joateko orain artean ez dute arazorik izan naziotasunari dagokionez, «baina Kanada hasi da beste agiri batzuk es- katzen, eta AEBetan ere antze- ko neurriak datoz».

Ez dira garai errazak, baina askoz okerragoak bizitakoak dira Ipar Amerikako indige- nak. Mohawkeraz ahul baina bi- zirik eta biziberritzen dago, eta ispilu ere bada Haudeno- saunee irokes konfederazioko kide izan ziren gainerako he- rrientzat ere: mohawkez gain, oneidak, onondagak, cayugak, senecak eta tuscatorak men- deetan izan ziren aliatu, lehen europarrak Ipar Amerikan agertu zirenean ere. Bost men- de beranduago, hemen daude, beren hizkuntzei eta kulturei eusten.